


Doikuntzak egin ditu bere aktiboetan eta etapa bat itxi du

EROSKI-K %30,2 IGO DU BERE EMAITZA OPERATIBOA 2020AN, 252 MILIOI EURORAINO

- *Ebitdak* 330 milioi euroak gainditu ditu, eta %26 igo da 2019tik
- Salmentak guztira %2,1 handitu ziren 5.377 milioi euroetaraino, eta, hala, igo egin du bere elikagai arloko merkatu kuota Espainia iparraldeko merkatuan
- Bere aktibo kontsolidatuen balioa 195 milioi eurotan doitu du, eta balorazio zuhurragoa aplikatu du negozioaren etorkizuneko proiektioetan
- Horren ondorioz, 77 milioi euroko emaitza kontsolidatu negatiboa aurkeztu du
- 2020an, EROSKI-k 140 milioi eurotan apaldu zuen bere zor finantzarioa, eta jada 2.000 milioi euro baino gehiago murriztua du 2009tik
- Amaitutzat eman du lehiakortasuna eta kokapen finantzarioa eraldatzeko eta hobetzeko 12 urteko etapa bat

Elorrio, 2021eko maiatzaren 18a.- [EROSKI](#) taldeak 2020ko ekitaldiko kontuak itxi zituen, 2021eko urtarrilaren 31rekin, eta joan deneko 12 urteetako emaitza operatiborik onena izan du, 252 milioi eurotaraino iritsi arte; horrek %30,2ko hazkundea ekarri dio aurreko urtearen aldean. Haren *ebitda* ere hobetu egin zen, %26 igo baitzen, 331 milioi eurotaraino. 2020an emaitzak hobetu badira, horren arrazoia da aurreko hamabi urteetan taldearen negozioek hobekuntzak egin izana lehiakortasunean.



EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Negozioaren eboluzio positiboaren ildo beretik, taldearen salmenta gordinak handitu egin ziren 5.377 milioi eurotaraino, nahiz eta COVID-19ak kontrako eragina izan duen elikagaien arlokoak ez diren negozioetan; izan ere, asko eragin die pandemia garaiko mugikortasun murrizketak eta irekiera mugek. Fakturazioan hazkundera izan du noiz eta taldearen salmenta azalera %3,5ean jaitsi denean. Salmenten portaera on hori *online* dendan ere gertatu da, zeinak %82ko igoera izan baitu azkenean 2020an.

EROSKIk lidergoa indartu du Espainia iparraldeko merkatuan (Galiziatik Balearretara), eta, hala, %13raino igo du bere merkatu kuota 2020an; hortaz, bigarren elikagaien banatzaile izaten jarraitzen du perimetro horretan.

"2020a ezohiko urtea bihurtuko da historiarako, COVIDak gizarte eta enpresa mundu osoari eragin baitio. EROSKIren jarduna oso baikorra izan da, nahiz eta negozio batzuek (hala nola gasolindegiek, bidaiak agentziek eta kirol dendek) oso inpaktu ezkorra izan duten", azpimarratu du EROSKIko lehendakariak, Agustín Markaidek.

Jardun horren emaitza arruntak oso positiboak izan dira azkenean. *"Emaitza arruntak asko hobetu dira, bai emaitza gordinei begiratzen badiegu, bai ebitdari eta bai emaitza operatiboei. Urte asko daramatza jarraian hobetzen negozioa berregituratu eta lehiakortasuna hobetu zenetik"*, gogorarazi du Markaidek.

EROSKIk bere irekiera erritmoari eusten dio

Pandemiak ekarritako zailtasunak zailtasun, iaz EROSKIk 70 denda baino gehiago inauguratu zituen, nola propioak hala frankizia erakoak, eta, hala, iparraldean duen posizioa sendotu du. Nabarmentzekoa da nola erosi dizkion hamar saltoki Bizkaian Sabeko Banaketari eta egokitu dituen "Zurekin" eredura. Iparraldean (taldearentzat lehentasuneko den eremuan), era berean, bere sareko 92 denda berri zituen.

Dena den, taldearen salmenta azalera 40.000 m² jaitsi zen iparraldean dituen hipermerkatuen presentzia txikitu egin baita.

Higiezin operazioen arloan, 2020ko ekitaldian, 27 higiezinekin *sale & leaseback* operazio bat itxi zuen EROSKIk, nazioarteko REIT W. P. Carey funtsarekin, 85,5 milioi eurokoa.

Balio aktiboak murrizten dituzten ezohiko zuzkidurak

2020an EROSKIk bere aktiboen balorazioak eguneratu zituen, eta balorazio zuzkidera aplikatu zuen pandemiak jotako negozioen etorkizuneko proiektioetarako; hala, proiektio horien beherapen tasak egokitu zituen ingurunean sumatzen diren ezjakintasun ekonomiko eta finantzarioetara. Horren ondorioz, merkatu funtsen eta beste aktibo batzuen balioa jaitsi da bai kontu kontsiludatuetan eta bai EROSKI kooperatibarenetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

"Gure ustez, enpresen balorazio arriskuak zuhurragoa izan behar du, batez ere bai bere abiaduragatik eta bai bere inpaktuagatik guztiok ezustean harrapatu gaituen pandemia hau igarotzen ari garen honetan. Hori dela eta, tentu handiagoz jokatu dugu ebaluatutako aktiboak baloratzeko orduan etorkizuneko proiektioetarako. Horren ondorioz, 2020an zuzkidura garrantzitsuak txertatu ditugu, bai kontu indibidualetan eta bai kontsolidatuetan. Zuhurtzia handiagoko irizpide horiekin, hobeto egongo gara etorkizuneko edozein gorabeherari aurre egiteko", esan du Agustin Markaidek.

Ezohiko zuzkidurak direla medio, ekitaldi honetan, bai EROSKI Taldearen eta bai EROSKI S. COOP.en (balorazioa aldatu zaien sozietateetan partaidetzak dituenaren) kontu kontsolidatuen emaitza operatiboak bikainak izanagatik, 77,56 eta 442 milioi euroko emaitza negatiboekin itxi du 2020a.

2009-2020: etapa baten amaiera

"EROSKI etapa bat amaitzen ari da, eta beste bat sortu da. Amaitu den etapa honetan, EROSKIk birmoldatze garrantzitsua egin du, eta, horren ondorioz, 2008an zuen tamaina erdira ekarri du. Inpaktu ekonomiko, finantzario eta sozial garrantzitsuko etapa bat. Gure taldearen kultura kooperatiboari, ahaleginari, sakrifizioari, elkartasunari eta kohesio sozialari esker, zuzpertz, eraldatu eta berreskuratu egin dugu proiektua. Horregatik dago gaur EROSKI inoiz baino indartsuago", azaldu du EROSKIk lehendakariak, Agustin Markaidek.

Etapa horretan, EROSKIk ardatza eraginkortasunean jartzea erabaki zuen; bere perimetroa murriztu, eta ahaleginak indartu zituen iparraldean, erreferentziazkoa den eremuan, lehentasunezkoak dituen negozioak indartuta. Horren ondorioz, sarea txikitzeko zenbait operazio egin zituen (saldu egin zituen IF lurindegia, erdialdean zituen supermerkatuak, lehentasunezkoak ez diren eremuetako hipermerkatuak...), eta alferreko zenbait aktiboren eta higiezinaren desinbertsioari heldu zion. Era berean, zenbait hitzarmen egin zituen finantza erakundeekin zorra berriz finantzatzeko; horri esker, egonkortasun finantzarioa lortu zuen bere errepide orria garatzen jarraitzeko. Azkenik, orain berriki bazkide bati eman dio sarrera Katalunian eta Balearretan dituen negozioetan.

EPCG, bazkide berria Katalunian eta Balearretan

EROSKIk hitzarmen bat egin du EP Corporate Group inbertsio funtsarekin, eta bazkide partario gisa txertatuko da SUPRATUC 2020 sozietatean, zeinak Kataluniako eta Balearretako negozioak biltzen baititu. Operazio horrek bultzada berria emango dio Kataluniako inbertsioei eta jarduerari, CAPRABO markarekin, eta Balearretakoari, EROSKI markarekin, eta *"erakusten du gure etorkizuneko proiektuak konfiantza ematen duela; izan ere, hitzarmen honek bi aldeek onartutako kudeaketa eta garapen plan bat dauka, eta modua emango du gure merkatuak sendotzeko, gure kokapen komertziala indartzeko eta*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642


[Online prentsa aretoa](#)

errentagarritasuna handitzeko. Gure negozioak azaldu duen gaitasun motorrak (baita nazioartean ere) erakusten du bide zuzenean doazela gure jarduera eta etorkizuneko planak”, esan du EROSKI Taldeko lehendakariak.

Zorra normalizatua eta beste etapa baten hasiera

2020ko ekitaldian, EROSKIk 140 milioi euro murriztu du bere zor finantzarioa, eta, hala, 2.000 milioi euro baino gehiago murriztu du zorra 2010etik.

“Azken urteetan, egindako zorrak murrizteko konpromisoa betez joan da EROSKI, baita COVID garaian ere, eta, era berean, eredu lehiakorragoetara berregituratu ditu negozioak. Orain zor gehiegiko etapa baten amaierari heltzeko moduan da, eta iragartzen dugu 2021aren amaieran gure zor finantzario garbiak normaltasun maila bat hartuko duela”, gogorarazi du Markaidek. EROSKIk amaitutzat emango du urte honen amaierarako finkatutako zorraren amortizazioaren konpromisoa, zorra konprometitutakoa baino kopuru handiago batean murriztuta, eta hala mila milioi eurotik behera geldituko da haren zor finantzarioa.



Negozioaren lehiakortasun handiagoari eta kokapen finantzarioari esker, EROSKIk etapa berri bati ekingo dio. EROSKIko lehendakariak dioten bezala, “EROSKIk ekin dion etapa berriak, iaz baino muga gutxiago dituenak, jarraituko du kooperatiba-enpresa gisa duen konpromisoan ardaztuta, oraingo zein etorkizuneko bazkideen eta gizartearen aldeko eraldaketa-agente aktibo izateko konpromisoan, elikadura osasungarriagoa eta kontsumo iraunkorrago bat bultzatuz”.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKI TALDEAREN USTIAPEN KONTU KONTOLIDATUETATIK		
ateratako datuak		
2021eko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldia		
	2020	Aurreko urtearen aldean
SALMENTA GORDINAK (BEZarekin)	5.377	%102,1
EBITDA	331	%126,0
ONURA OPERATIBOAK	252	%130,2
ZERGA ONDORENGO EMAITZA	-77,56	% -171,7

* Narriaduren eta finantzarioen aurretik.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziatzko operadorea Espainia iparraldeko merkatuan, besteak beste Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere *online* supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)